ERASO MATXISTEN AURKAKO PROTOKOLOA

Joxemi Zumalabe Fundazioa

AURKIBIDEA

1. ATALA: KOKAPENA

- **SARRERA** 4-6. ORRIALDEAK
- **OINARRIAK** 7-11. ORRIALDEAK
- **ESKU-HARTZEAK EGITERAKOAN PENTSATU BEHARREKOAK** 12. ORRIALDEA

2. ATALA: PROTOKOLOAREN ERABILERA

- **PROTOKOLOAREN AKTIBAZIOA** 15. ORRIALDEA
- **EGOERAREN AZTERKETA** 16-17. ORRIALDEAK
- **KUDEAKETAREN URRATSAK ETA NEURRIAK** 18-20. ORRIALDEAK
- **NORK JAKIN BEHAR DU ZER** 21. ORRIALDEA
- **HAINBAT EGOEREI AURRE EGITEKO ESTRATEGIAK** 22-23. ORRIALDEAK
- **EBALUAZIOA** 24. ORRIALDEA

3. ATALA: ERANSKINAK

- **PROZESUAREN INGURUKO HAINBAT DATU** 26. ORRIALDEA
- **ESPERIENTZIEN LABORATEGIA** 27. ORRIALDEA

BY NC SA

Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin
2018ko udazkenean argitaratua
Joxemi Zumalabe Fundazioa
Harremanetarako: komunikazioa@joxemizumalabe.eus
Www.joxemizumalabe.eus

1. ATALA

Kokapena

SARRERA

Duela urte batzuk, eraso matxisten inguruko tresna eta adostasunen beharretik **prozesu kolektibo** bat abiatu genuen Joxemi Zumalabe Fundazioan, hortik dator eskuartean duzuen *Eraso matxisten kontrako protokolo* hau[1]. Indarkeria matxistei aurre egin, gaiaren inguruan eztabaidatu eta euskarri bat sortzea fundazioaren azken urteotako lehentasun bat izan da, eta bide gorabeheratsua izan den arren lortu dugu erronka honi heltzea.

Hainbat esperientzietatik tiraka abiatu genuen ibilbidea, eta barne ildoko gaiak lantzen dituen *Kasu!* Lantaldearen esku gelditu zen prozesu hau dinamizatzea eta saio kolektiboak prestatzea. Beste eragile batzuen material/esperientziak ere oso lagungarriak izan dira bide honetan, **hemendik gure eskerrak eta aitortza herri mugimendu zein kolektibo feminista** ugariren lanari.

Azkenik, azpimarratu nahi genuke, prozesuaren **lagin txiki bat baino ez** dela hau. 2-3 urte hauetan bizitako gogoeta, adostasun eta eztabaida guztiak ahalik eta modu erabilgarrienean laburtzen saiatu gara. Bidean ikasten eta gure gogoetak berrikusten jarraituko dugulakoan, on egin!

1: Prozesuan zehar erabilitako ariketak jasotzen dituen bertsioa irakurri nahi baduzue, eskatzea besterik ez duzue.

PROZESUAREN HELBURU ETA ERRONKA NAGUSIAK:

- **Esku-hartzean lagunduko digun tresna bat sortzea:**

Interbentzio edo esku-hartzean baliagarria izango zaigun baliabide bat sortzea izan dugu helburu. Maila teorikoan landu izan ditugun ikuspegiak maila praktikoan txertatzeko eta erasoren bat gertatuz gero nola jokatu zehazten lagunduko digun tresna izateko. Hots, erasoen aurrean zer egin, nola, zergatik eta nor(tzu)ekin erabakitzen lagunduko digun euskarri bat sortu dugu. Gure jardunaren bueltan kokatzen diren pertsona eta proiektuen esparru guztiak aintzat hartu nahi izan ditugu:

-Barnera begira: Joxemi Zumalabe Fundazioaren proiektu eta lan-talde ezberdinetan parte-hartzen dugun kideontzat.

-Kanpora begira: Beste eragile eta pertsonekin konpartitzen ditugun espazioak barnebilduko dituena. Herri Mugimenduekin elkarlanean lan egiten dugun kolektiboa garenez, besteekin konpartitzen eta adosten ditugun dinamizazio, ikastaro, proiektu zein bestelako harremanei ere eragingo diena.

- **Indarkeria matxistaren prebentzioari heltzea:**

Protokoloa sortzeko prozesua, gure kolektiboko partaideen artean prebentziorako bide bat izan dela uste dugu; eta zehazki, herri mugimenduetan bizi dugun indarkeria matxistaren inguruko lanketa gauzatzea oso garrantzitsutzat jotzen dugu. Prozesu honi itxiera eman diogun arren, gai batzuen inguruan eztabaidatzen jarraitzeko gogotsu gaude, eta ziurrenik kezka berriak sortuko zaizkigula hemendik aurrera ere. Protokoloa egitetik haratagoko prebentzio-ekintzak egin izan ditugun arren, erronka moduan planteatu dugu prebentzioaren inguruko proposamen zehatzago bat lantzea.

- **Herri mugimenduei ekarpena egitea:**

Protokolo hau eginez gure aletxoa eta ekarpena egin nahiko genieke herri mugimenduei; euskarri hau beste talde batzuentzat baliagarri ere izango delakoan gaude (eztabaida elikatzeko, tresnak eskuratzeko, erreferentziak izateko…); betiere apaltasun handiz eta beste batzuek aldez aurretik egindako bideari aitortza eginez. Protokolo hau gure testuingurura egokituta sortu dugula nabarmendu nahi dugu eta, beraz, beste mugimendu batzuen jardueretara aplikatzerakoan egokitze prozesua ezinbestekoa da.

- **Konplexutasunari heltzea:**

Protokoloaren enborrean *indarkeria matxistak* daude. Beste zapalkuntza mota batzuk baztertzen ez ditugun arren, abiapuntua hemen kokatu dugu. Ibilbide batetik datorren prozesuaren emaitza delako, eta une honetan mahai-gainean ditugun beharrei erantzun nahi diogulako.

Indarkeria matxistaren konplexutasunaz ohartuta, protokoloa irekia izan behar dela iruditzen zaigu, baina zehatza aldi berean:

- Irekia: egoerak eta baldintzak anitzak direlako oso, eta, beraz, ez dago errezeta itxi, zurrun eta bakarra.

- Zehatza: mugimenduen baitan espezifikoki jarduteko, pautak eman eta bidea erraztu behar digulako, momentuan eztabaida amaiezinetan sartzea ekidin behar duelako.

Zentzu honetan, euskarri bat izan behar duela uste dugu, herri mugimenduen baitan espezifikoki jarduteko argibideak emango dizkiguna eta nondik nora jo bideratzen lagunduko diguna. Hau da, printzipio, oinarri eta balio komun batzuk zehaztuko dizkiguna erasoei nola aurre egin argitzeko, baina irekia zentzu horretan, ezin baititugu egoera posible guztiak aurreikusi. Era berean, irekitasun horrek ezin du etengabean gauza guztien inguruan eztabaidatzeko aitzakia bihurtu, behin eta berriz zerotik ezin dugulako hasi.

Egin dugun ibilbide honetan, mugimendu feministan zein, orokorrean, Euskal Herriko beste hainbat herri Mugimenduetan eraso matxisten inguruan debatea piztu duten gaiak izan ditugu oinarri. Hortik tiraka, eraso baten kudeaketan herri mugimenduetan izan ohi ditugun kezka, zalantza eta gatazkei heldu diegu.

Debate horiek presente izateak begirada kritikoa eta zorrotza izaten lagundu digu. Era berean, gure arteko eztabaida bultzatu du eta, beste esperientzia batzuk jasotzen ere saiatu gara. Protokoloa bera testuinguruan jartzean, honako kezka hauen inguruan jardun dugu, besteak beste.

Zeintzuk dira eraso baten kudeaketan bizi izan ditugun debate nagusiak, barne mailan edo taldetik kanpo?

EH mailan eraso matxisten inguruan zein eztabaida daude?

Mugimendu feministaren barnean?

Erasotzailea/erasotua dikotomiak

Protokoloen erabilera

Erantzunak, interbentzio estrategiak eta indarkeriaren legitimazioa

Indarkeria matxista, indarkeria sexista, genero indarkeria

Erasoen identifikazioa, berifikazioa eta sozializazioa

Herri mugimenduetan bizi izan ditugun debateez gain, azken urteetan, indarkeria matxistari zehazki erantzun dioten hainbat herri ekimeni ere erreparatu diegu. Beste hamaika egitasmoren artean, Gasteizen 2016ko apirilaren 9an, ***11 eraso 12 erantzun, Feministok Prest! Vuestras violencia tendrán respuesta*** lemapean mobilizazio eguna antolatu zen, mugimendu feministako adar ezberdinak baturik. Urte horretan bertan, azaroak 18 eta 19an *Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxa* plataformak, ***Indarkeria matxista birpentsatzen: feminismotik erantzunak martxan*** jardunaldiak antolatu zituen, orain arte erabili diren formula, erantzun eta protokoloak berrikusteko asmotan.

Bi ekimen hauetan, bortizkeriatzat zer ulertzen den birplanteatu izan da, bere konplexutasun guztiak eta bere forma anitzak ulertzeko markoa sortuz. Bortizkeria matxistak kolpeak eta hilketak ez ezik, beste forma anitz garatzen dituela argi azaldu da; kontu estrukturala eta sistema batean oinarritzen dela. Honez gain, feminismoek eta herri mugimenduek egoera hori agerian uzteko eta aurre egiteko erantzukizuna daukatela azpimarratu izan da.

Hainbat esperientzietatik ikasiz, eta beste kolektibo batzuek aldez aurretik egindako lanketak irakurri eta aztertu ostean, indarkeria matxista ezaugarritzen duten elementu nagusiak jaso ditugu. Ondorengo lerroetan gure kolektiboan adostu ditugun termino, kontzeptu eta oinarriak definitu ditugu:

Indarkeria matxista(k) terminoa erabiliko dugu.

- Euskal Herriko herri mugimenduetan eta, batez ere, mugimendu feministan erreferentziala den kontzeptua delako.
- Kasu honetan, instituzioetako paradigmatik eta eredu komertzialetatik aldentzen gara, beste espazio batzuetatik hartu duten estrategiari jarraiki.
- Izaera plurala duen fenomeno moduan ikusten badugu ere (forma eta aurpegi anitzak), praktikotasunagatik singularrean erabiliko dugu: indarkeria matxista.

INDARKERIAREN EZAUGARRITZEA:

- Indarkeria sistemiko-estrukturala: botere-harremanez gurutzatutako testuinguru heteropatriarkal batean kokatzen dugu eta, beraz, hainbat zapalkuntzen iraupenarekin edo erreprodukzioarekin lotuta dagoen indarkeria dugu. Indarkeria eta eraso matxistak ezin ditugu kasu isolatu gisa ulertu, egitura baten baitan baizik.
- Indarkeria sexista, zein beste indarkeria mota batzuk barnebiltzen dituena; heteroaraua puskatzen duten gorputzen kontrako indarkeriak ere barnebiltzen dituena.
- Indarkeria eta eraso matxistak ulertzeko, bestelako indarkeria sistemiko-estrukturalak kontuan izan behar ditugu (arrazista, klasista, kapazitista...).
- Indarkeria matxistek forma anitz hartu ditzakeela, batzuk identifikatzeko zailtasun gehiago ditugula:
  - Indarkeria psikologikoa
  - Indarkeria fisikoa
  - Indarkeria sexuala
  - Indarkeria soziala
  - Indarkeria ekonomikoa
  - Indarkeria sinbolikoa
- Publiko/pribatu dikotomia: indarkeria matxistaren kontrako borrokaren ibilbidean oso garrantzitsua izan arren, dikotomia horren arabera ez sailkatzea proposatzen dugu.
- Esparru formal/informalak: militantzia edo parte hartze antolatuan garrantzia duten bi esparru mota horietan gertatutako eraso eta indarkeriei heldu nahi diegu. Hau da, bilera batean gertatutako eraso bati zein bileraren osteko potean edo auzoko jaietan gertatzen diren erasoei helduko die protokolo honek.
- Indarkeria matxista herri mugimenduetan: eraso matxistek gure espazioetan sortzen dituzten ondorioak espezifikoki aztertzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Osasun eta ongizatean sortzen duen eragina, erantzuteak eta gaia lantzeak

dakartzan ondorioak, besteak beste. Begi-bistan ipini nahiko genuke eraso horiek kostu bikoitza dutela, ondorioen zein erresistentzien kudeaketaren aldetik (ez sinistea, defentsiban jartzea, gatazkak landu nahi ez izatea, gaia lantzeko denbora eta baliabieak ez jartzea, erabakiak epaitzea, babesik ez jasotzea, isilik gelditzea...).

ERASOAK IDENTIFIKATZEN

- Botere-harremanak, intentsitatea eta zaurgarritasun maila: Botere-harremanen azterketak indarkeriaren jatorria eta testuingurua ulertzen laguntzen digu eta kategoria ezberdinak gurutzatzen direnean eragina handitzen dela ulertzen ere (arraza, klasea, orientazio sexuala, erlijioa, adina, dibertsitate funtzionala, maila akademikoa...). Desberdinkeriaren oinarrizko ezaugarri hauek gurutzatzen direnean zaurgarritasuna handitzen da eta diskriminazio eta baztertzeko maila aldatzen dira. Honek hainbat esparrutan eragiten du: harreman pertsonaletan, espazio publikoaren erabileran, lanean, gure gorputz eta sexualitatearen bizipenean etab.
- Erasoak ez dira gertakari isolatuak: Erasoa, indarkeria matxistaren adierazpide moduan ulertzen dugu, botere-tresna gisa. Indarkeriaren erabilera hau egiturazkoa den heinean, ez dira ekintza isolatuak, botere-harremanetan oinarritutako interakzio prozesu baten kokatzen diren ekintzak baizik.
- Erasoak denboran kokatuz: Erasotuaren esperientzia zentroan jartzeaz gain, erasoaren larritasuna eta aurrekariak antzematea lagungarria izan daiteke. Erasoak kudeatzeko espazioak ere badu bere garrantzia, baita denboraren ardatzak ere. Hau da, ez da berdina berriki gauzatu den eraso baten berri izatea eta hura kudeatzea edo iraganean gertatu den eraso bat kudeatzea.
- Adostutako muga bat hausten denean: **Ekintza jakin bat ez da eraso bat izatez, arau edo kode baten gainean hartzen den erabakiak bihurtzen du eraso. Harreman batean adostutako mugak gainditzen direnean, erasoa gertatzen da.** Noiz urratzen dira mugak? Mugak zehaztu dituen pertsonak horrela sentitzen duenean. **Hartu-eman bat adostea***[2] aipatzen dugunean honetaz ari gara:
  - Entzuketa aktiboa, beste pertsonaren nahiaz ardura izatea, momentuoro bestearengan eta norberaren bizipenean arreta jarriz.
  - Inor erabili, manipulatu, mehatxatu edo abusatzen ez den hartu-emana izatea. Behin onarpena izatea ez da betirako bermea.
  - Edozein momentutan ezetz esateko aukera izan behar duela.

2 Consentimiento hitzaren itzulpenarekin zalantzak izan ditugu, izan ere, euskaraz apenas aurkitu dugu hitz honen itzulpen zehatzik. Harreman onetsiak eta harreman adostuak ezberdina dira, guk harreman adostuak erabiliko dugu eta.

Ezetzak modu askotan ulertu daitezkeela (ez orain, ez horrela, ez zurekin…). Baiezko esplizituari arreta jartzea.
  - Aurrez adostutako kodigoek zein aurrez hitzartu gabekoei erreparatu behar zaie (hitzezkoak, keinuak…)
  - Desio guztiak errespetatzearen garrantzia, emakumearen desira ere zentroan jartzearen garrantzia.

- Erasotzaile/biktima kategorien inguruko kezkak:
  - Erasoak pertsona baten aurka edo kolektibo baten aurka izan daitezke.
  - Erasotuaren esperientzia zentroan jarriko dugun arren, kanpotik ere identifikatu daitezke erasoak, betiere paternalismoa eta ber-biktimizazioa ekiditen. Adibidez: solasaldi bat antolatzen badugu, eta gizonezko hizlariak gure kidea den emakume baten inguruko mezu iraingarriak azaltzen ditu, erantzun bat eman beharko genuke (nahiz eta ez dakigun inor erasotua sentitu den edo ez).
  - Erasoak bizitzearen ondorioez gain, aktiboki erantzuteko aukera/gaitasuna/beharra eta agentziaz hitz egitea garrantzitsua iruditzen zaigu.
  - Pairatu dezakegun min eta sufrimendutik haratago (neurgailu bezala erabiltzen da askotan), errekonozimenduaren bueltan hitz egiteak lagunduko liguke.
  - Erasotuaren kokapen soziala kontutan hartzea garrantzitsua da biolentziaren eraginak aztertzerako orduan.

Ondorengo taulan jaso dugu herri mugimenduetan matxismoa nola birsortzen den. Eskema labur bat baino ez den arren, testuingurua modu egokian deskribatzen dela iruditzen zaigu. Zaragoza/Madrilgo *Nociones Comunes* elkarteko webgunetik hartu genuen eta euskararatu dugu:

INDARKERIA MATXISTA HERRI MUGIMENDUETAN

ZAINTZA LANAK

-Talde bizitzaren sostengurako beharrezkoak diren lanak eta laguntza emozionalaren feminizazioa.

- Aktibismorako ekintzen planifikazioa, zaintza lanetan ari diren pertsonak kontutan hartu gabe (haurrak, adineko pertsonak...)

SEXUALITATEA

-Ahozko jazarpena
-Herri mugimenduen jaiguneak sexualki erasotzeko erabiltzea
-Abusu sexualak, bortxaketak, sexu bidez transmititutako gaixotasunak kutsatzea
-Erasoak ezeztatzea eta erasotuak zalantzan jartzea.
-Erasoen kudeaketa eza edo gaizki kudeatzeagatik erasotuak ber-biktimizatzea.

ANTOLAKETA

-Paternalismoa, kideen lan eta iritzien (emakumeon*) ikusgarritasun eta errekonozimendu falta
-Emakume, bollera eta transentzako espazio ez-mistoen kritika eta ukapena
-Eremu ikusgarrienetan (ekintzak, manifestazioak, asanbladen dinamizazioa...) gizonezko cis-en presentzia sarritan nabarmentzea
-Akta hartzearen ardura eta asanbladen ordutegia, zaintza lanekin bateragarri ez izatea (jardunaldi hirukoitza: lana, etxea, militantzia).
-Estatusa: Espazio horizontal eta asanbleariotan gizonezkoen botereaz nagusitzea.
-Ahotsa: hitz hartzea nagusiki gizonezkoena izatea, emakumezko kideak moztea, mansplaining, emakumezko kide batek aurrez aipatutako ideia errepikatzea.
-Prentsa ohar eta komunikatu androzentrikoak idaztea.
- Sare sozialak logika eta jarrera matxistak erreproduzitzeko espazio bezala erabiltzea.

ERASOAK SALATZEAREN ONDORIOAK

-Moteltasuna, oldarkortasuna eta opakotasuna salaketa prozesuan
-Erasotuak edo erasoak publikoki salatzen dituztenak zalantzan jartzea, difamazioa eta desakreditazioa
-Erasoak, bertsioen arazo bat direla ulertzea
-Erasotuak bakartzea
-gaslighting: erasotuak nahastea informazio faltsuarekin, beraien burua zalantzan jar dezaten.

Iturria:
Nociones Comunes, Vivas Nos Queremos ikastaroa

ESKU-HARTZEAK PENTSATZERAKOAN ZAINDU BEHARREKOAK

Oso garrantzizkoa iruditzen zaigu esku-hartze bat pentsatzen ari garenean, esku-hartzeak berak izango dituen helburu orokorrei erreparatzea. Izan ere, esku-hartze bat bere horretan helburu bat izan baino, eraso matxistak ekiditeko edota lantzeko tresna dela presente izan beharko genuke beti.

Hauek izan beharko lirateke esku-hartzeen helburu orokorrak:

1. **Erasoaren ondorioz sortu diren zauriak eta minak ez handitzea.**
2. **Eraso bizi izan duen pertsonaren balizko berrosatze prozesua babestea edo lanketa prozesu bat martxan jartzen laguntzea.**
3. **Erasoa ez errepikatzea, edo gutxienez erasoak ekiditeko talde dinamika zaintzea..**
4. **Erasoen inguruko lanketa kolektiboa bultzatzea.**

ESKU-HARTZEA EZAUGARRITUKO DUTEN PRINTZIPIOAK

Taldeko kideen artean ikuspegi anitz eta ezberdinak egon ahal direla uste dugun arren, printzipio hauek azpimarratu nahiko genituzke:

- Esku-hartzearen diseinuan zein garapenean erasoa pairatu duen pertsonaren **hitza (interes, beharrak, kezka eta ezinegonak) kontuan hartzea.**
- Eragilearen parte garen kideok **erasoaren berri izateko aukera eta arriskuak kontuan hartzea**, konfidentzialtasuna kontuan hartuz.
- Eraso baten jakinarazpenaren aurrean **esku-hartze plan bat garatzea** (minimoa bada ere). Ezer ere ez egin gabe ez gelditzea, alegia.
- Egoeraren larritasuna eta konplexutasuna kontuan izanik, pentsatzen ditugun esku-hartze guztien **ondorioak aurreikusteko** berebiziko **ahalegina** egitea.
- Esku-hartzearen diseinu eta exekuzio prozesuan **taldearen zaintza bermatzea.**
- Egoera honetara heltzeko bidea zein izan den aztertzea: **militantzia ereduak, lidergotza, zein harreman eredu ditugun…**

Printzipioetan sakonduz…

- Konfidentzialtasunari dagokionean, ***zer kontatu eta nola* erabaki behar da,** epaiketa publikoa eta morboa saihestuz. Aldi berean, taldeak talde mailako kontuetan erabakia hartzeko aukera eduki behar duela uste dugu.
- Erasotuaren iritziak zentralitatea edukiz, erasoaren esku-hartzearen nondik norakoa **kontsentsuz erabakitzea garrantzitsua litzateke**. Erasoa pairatu duen pertsonaren hitza eta konfidentzialtasuna bera kontraesanetan egon al dira. Hau da, beharbada momentu batean erasotua izan denak salaketa publiko eta irekia egin nahi du, edota epaitegietara joan. Baina gerta liteke, erasoa talde moduan kudeatzen ari bagara, taldeak salaketaren bide hori argi ez ikustea edota taldeak salaketa hori egitea erasoa pairatu duen pertsonarentzat kaltegarria izan daitekeela pentsatzea. Bide bat zein beste hartuta, erasoak ekiditea da helburua.
- Esku-hartzearen helburuak eta taldekideon artean adostuko ditugun printzipioek mugatuko dute **erasotzailearekiko izan behar dugun posizioa.**
- Ditugun baldintzak, indarrak, egon daitezkeen erresistentziak eta **pauso bakoitzaren ondoren etorri daitekeena arretaz aztertzea.**

2. ATALA

Protokoloaren erabilera

Kurtso hasieran kudeaketa lantaldea sortu

PROTOKOLOAREN AKTIBAZIOA (1)

→ **EGOERA AZTERTU** (2)

→ **NEURRIAK eta PROZESUA ADOSTU (eszenatokiaren arabera)** (3)

PREBENTZIOA ETA EBALUAZIOA

Fundazioak lan egiten duen eremuetan (dinamizazioa, formakuntza, barne maila) kolektiboko kide batek eraso bat bizi edo horren berri badu, protokoloa aktibatuko da. Egoerak hala eskatzen badu, prozesu bat abiatuko da, eta Erasoen Kudeaketa Lantaldea (EKL) izango da gaia lantzearen arduradun nagusia. Lantalde honen ardura maila egoerak berak zehaztuko du

Zalantzak eta egoera zailak nagusi izaten dira sarritan, erantzunik onena gaiari heltzea da. Ezin gara ezer egin gabe geratu.
Protokoloak bide ezberdinak hartu ditzake egoera, gune eta erasoa bizi duenaren nahi eta beharren arabera.

LANTALDEAREN FUNTZIOAK:

Erasoak lantzeko ardura kolektibo osoarena izan arren, EKL-k prozesuaren dinamizazio eta kudeaketaren ardura izango du: egoera tentuz aztertu, neurriak pentsatu, ebaluazioa...
Honez gain, parte-hartzen dugun ekimenetan erasotzailerik dagoen berrikusteaz arduratuko da lantaldea.

.

PREBENTZIOA:

Kudeaketaz haratago, badugu auto-trebatzeko eta formatzeko ardura. Prebentzioari begirako ekintzak edonork proposatu ahal dituen arren, talde honen ardura da prebentzioaren helburuak zehaztu eta plangintza/proposamen zehatza egitea (formakuntza, gogoeta saioak, kanpainak...).

LANTALDEAREN OSAKETARAKO IRIZPIDEAK:

-Fundazioko lan-eremu ezberdinek presentzia izatea lantaldean.

-Taldekideen arteko konfiantza eta lanerako erraztasuna

-Gaiaren inguruan eskarmentu maila ezberdina duten pertsonen presentzia bermatzea, formazio eta ikasketa prozesuak errazteko.

-Taldea rotatiboa da, bi edo hiru kidez osatua eta urtean behin aldatzen da bere konposaketa.

-Egoera zehatz edo eraso baten aurrean taldera jende gehiago biltzea aurreikusi daiteke. Hori egitekotan kontutan hartu beharko dira, besteak beste, taldekide berriek erasoan inplikatuta daudenekiko gertutasuna.

-Erasoa bizi duenak ez du era iraunkorrean parte hartuko lantalde horretan, sortu diezaiokeen kalteengatik batipat.

Ondorengo eskeman, esku-hartzearen hasieran zein prozesuan zehar egin beharreko galderak eta azaldu daitezkeen kezkak laburbildu ditugu. Egoeraren arabera azterketarako denbora eta baliabide gehiago izango ditugu. Eskema hau lagungarria izan dadin egin dugu, baina ez da puntuz puntu jarraitu beharreko prozedura:

Non eta noiz gertatu da erasoa eta nolakoa izan da?

Informazioa nondik heldu zaigu? Iturri horretara gerturatu eta informazioa osatu behar dugu aurrena. Informazioa eman diguna ez bada erasoa bizi duena, berarengana gerturatzeko modurik onena aztertu behar dugu. Horretarako bere harreman-sarea lagun izango dugu.

Erasoa gertatu den unea ere garrantzitsua da. Askotan ez dira erasoak gertatzen diren unean ezagutzen, baizik eta beranduago. Kasu horietan garrantzizkoa da gertaeraren errelatoa ordenatzea, ez epaitzea lehenago esan ez izana, eta garrantzirik ez kentzea iraganeko kontua bailitzan.

Erasoa bizi duena eta erasoa egin duenak ze kokapen dute kolektiboan eta non egiten dute topo?

Nola dago taldea une honetan eta zein bere lehen erreakzioa erasoaren aurrean? Nola eragiten dio edo eragin diezaioke erasoak taldeari (eta alderantziz) inplikatu nagusien kokapenak kontutan hartuz?

Erasoa jasan duenarengana gerturatzean:

Gure babesa adieraziko diogu eta ELK lantaldearen eta protokoloaren berri eman.
Zer nahi duen galdetu behar diogu eta pentsatzeko denbora eman. Taldean parte hartu nahi duen ala ez eta hala izatekotan, nola egin nahi duen galdetu. Erasoa nola kudeatzea nahi duen galdetu beharko diogu, halakorik nahi badu. Erasoa publiko egin nahi ote duen edo ze nolako eskaera zehatzak dituen (erasoa egin duenarekiko, lantaldearekiko, kolektibo osoarekiko...)?

Kontutan izan erasoaren larritasuna areagotu ditzaketen elementuak:

-Erasoaren aurrekariak: erasoa behin baino gehiagotan edo era jarraian gertatzea, aldez aurretik zegoen harremana, erasoaren aurretik intentsitate baxuko tratu eskasa egon den...

-Gertatutakoari garrantzia kendu edo ezkutatzea.

-Indarkeria mota ezberdinen gurutzaketa (adina, kolektibo barruan botere posizioa, arraza edo jatorria...)

-Erasotuaren kontrako aliantzak sortzea bere hitza zalantzan jartzeko

-Erasoa bizi duenak nahi duena baino informazio gehiago zabaltzea inguruan, konfidentzialtasunaren hautsiz

-Protokoloaren aplikazioa ez onartzea erasoa egin duenak.

Erasoak identifikatu eta sailkatzea beharrezkoa zaigu gure erantzunak pentsatzerako orduan. Larritasuna eta maiztasuna dimentsioak kontuan hartuz eskema honetan kokatu ditugu: erasoa bizi duenaren ikuspegitik "larritasun gutxiko eraso bat" errepikakorra denean oso larria bihurtu daiteke. Bestalde, erasotzailearen ikuspegitik, ezberdina izango da norbaitek larritasun gutxiko eraso bat behin egitea edo etengabean egitea. Erasoak dimentsio ezberdin bat hartzen du errepikakorra denean, aitzitik, "larritasun handiko erasoa" denean (demagun, bortxaketa, norbait jotzea, edo norbaiten atxikitzea), behin *bakarrik* gertatuta ere *larritzat* joko dugu.

Sumendiaren logika ulertuz: erasoak eta indarkeria matxistaren erroak irudikatzeko, sumendiaren irudia erabili dugu. Sumendiak lur barruko materia (gasak, lurruna, laba, errautsak) kanporatzen dituzte irekierak dira. Kanpora ateratzen diren *erupzioak* gertatu daitezen ezinbestekoak dira oinarrian gertatzen diren bero eta materia mugimenduak. Honela, indarkeria matxistaren adierazpen gordinenak eta egunerokoan gertatzen direnek jatorri berbera dute eta askotan egunerokoek zorua ezartzen dute gordinenak diren horientzako. Aipatzen diren erasoak adibide batzuk dira, gehiago egon al dira.

Sumendiaren goian dauden erasoak

Paliza, heriotza-mehatxua, Bortxaketa saiakera (ez bakarrik sarketa), indarrez itxi, Lepotik heldu, izaera sexualdun baimenik gabeko bideo edo argazkiak egin eta zabaldu, onarpenik gabeko praktika sexualak bultzatzea edo behartzea, sexu-aukeragatik jazarpena

Sumendiaren erdialdean dauden erasoak

Mehatxua, txantaia, obedientzia exijitu, indarrez behartu, txistua bota, jarraitu, inguratu, inmobilizatu, isolatu, ostia bat eman

Sumendiaren behean dauden erasoak

ıraindu, oihukatu, erridikuluan jarri, broma matxistak, gutxietxi, infantilizatu, hitz egitean moztu, ezgai sentiarazi, mespretxuak, ziberkontrola, jeloskortasuna, sexualki aktiboa den emakumea epaitu, espazioa inbaditu, modu intimidatorioan hurbil hitz egin, bestearen harreman sexualez hitz egin modu umiliagarrian, lan banaketa generoaren arabera egin, borroka feminista gutxiestea, erasoen aurrean ezer ez egitea, konplizitatea edo pasibotasuna.

Erasoaren azterketan kontuan hartu beharreko elementu batzuk:

- Inpaktua
- Maiztasuna
- Intentsitatea
- Kokapen soziala
- Denbora
- Ikusgarritasuna
- Arriskua
- Sortutako ondorioak
- Botere posizioak

Ondorengo eskema honetan kudeaketa prozesuaren urratsak eta bideak laburtzen saiatu gara. Oraingoan ere kontutan izan behar dugu, ez dugula uneoro informazio guztia izango eskura eta baita momentu bakoitzean lehentasunak identifikatzen joango garela beharren arabera.
Lanketa hiru dimentsiotan egingo dugu: erasotuarekin, erasotzailearekin eta taldearekin. Dimentsio ezberdin hauetan hartzen diren ekinbide eta erabakien inguruan zer eta nola jakinarazten dugu tentuz aztertu beharko dugu.

NOREKIN?

Erasoa eta egoera aztertu ostean, zaindu beharreko elementuak aztertu. Erasotzailea, taldea eta erasotua kontuan hartuko ditugun arren, zentralitatea izango du erasotuak eta bere inguruak.

-Adi! Erasotzailea gertukoa denean gehiago kostatzen zaigu erasoak identifikatu eta prozesu bat abiatzea.

-Erasoa bizi duenaren ongizatea jarri behar dugu kolektiboaren irudiaren babesaren gainetik!

NOLA?

Kronograma posible bat irudikatu:

-Indarkeria gelditu
-Erasoa onartu
-Ondorioak onartu
-Erreparazioa eta jarrera aldaketa (prozesua bera)
-Komunitate errespetuzkoa lortu

Eman beharreko urratsak erabaki:

-Lanketa mota zehaztu
-Azalpenak eta informazioaren kudeaketa
-Erasoa bizi duenari laguntza
-Zaintza lanak
-Gure taldeak kanpoko laguntzarik behar duen erabaki

NON?

Fundazio osoan

Egoera aztertu ondoren prozesua abiatzeko erabakia hartuko dugu. EKL martxan jarri eta kolektibo osoak gaia landu dezan arduratuko da, beharrezkoak diren neurriak hartuz.

Lantalde batean

Egoera aztertu ondoren prozesua abiatzeko erabakia hartuko dugu. EKL martxan jarri eta talde zehatz batzuetan (erasoarengandik gertuen egon direnetan) gaia landu dadin arduratuko da, beharrezkoak diren neurriak hartuz.

Dinamizatzen dugun gune batean

Egoera aztertu ondoren inplikazio txikiagoa izateko aukera landuko dugu. Hala ere, beharrezkoak diren babes eta baliabideak eskainiko ditugu fundazio bezala.

NOREN ESKUTIK?

JMZ barnean

EKL

Fundazioak bultzatzen dituen ikastaro eta prozesu iraunkorrak

Egitura propioa + EKLrekin elkarlana/ kontrastea, Ez badago egitura propiorik EKL

Dinamizazio eta kolaborazioak

EKL + eskaera egin duen kolektiboa

NEURRIAK ESPAZIOAREN ARABERA: Prozesuan eman beharreko urratsak eta neurriak baldintzatzen dituen elementu garrantzitsu bat da kudeaketa zein espaziotan egingo den (erasoa zein espaziotan gertatu den aurrez kontuan hartuz) Hau honela, gune bakoitzean jarraitu beharreko prozedura eta irizpide proposamenak jaso ditugu:

JMZ barnean (asanblada, proiektu taldeen bilera, egunerokotasuna....)	--Kolektibo barruan zein kanpoan bizi ditugun erasoei aurre egiteko espazioak sortu nahi ditugu, horretarako beharrezkoak diren gune egokiak sortuz (konfiantza maila, hurbiltasuna, jende kopurua... kontutan hartuz). -Gure taldeko norbaitek taldean bertan edo kolektibotik kanpo egin edo jasan dezake erasoa. Hau kontuan hartu behar dugu, neurri ezberdinak proposatzerakoan..
Fundazioak bultzatzen dituen ikastaro eta prozesu iraunkorrak	-Ikastaro edo prozesu iraunkorretan indarkeria matxisten gaia kokatu eta erasoa kudeatzeko "erreferentziaziazko espazioa" zein izango den azaldu. -Erasorik gertatutuko balitz, erasotua izan den pertsonaren berosatzean laguntzea izango litzateke lehen urratsa (kontuan hartu, agian ez dugu hurbiltasunik). Formazio espazioaren ardura duen lantaldeak aztertu beharko du egoera, EKLrekin kontrastatuz. Eskuhartzerako estrategikoak izan al diren bestelako pertsonei ere eskatu al zaie laguntza (fundaziokoak ez diren kideak). -Talde osoak informazioa izatea aztertuko da eta agian esku-hartzearen parte izatea (ikusi "nork jakin behar du zer" atala). -Ikastaroan bertan kasu larriak gertatzen badira: lantaldea batu eta metodologia aldatu eta planteatu taldearekin zein lanketa egingo den. Lanketa hau egiteko, erasotzailea etxera joango da eta erasotuari babesa eskainiko zaio.
Dinamizazio eta kolaborazioak	-Dinamizazio bat egin edo kanpoko kolektibo batekin prozesu bat abiatzean, protokoloaren berri eman eta "eraso matxistarik ez dugula onartzen" azpimarratuko dugu. Dinamizazio guztietan ikuspegi feminista txertatzeko ariketa egingo dugu, orain arteko ildoan sakonduz. -Erasoa dinamizazio saioan bertan jazoz gero, dinamika etengo dugu berehala. Erasoa bizi duenak egoera digeritu eta behar duen indarra hartzeko tarte bat hartu dezakegu eta gure laguntza eta baliabideak eskaini. -Garrantzitsua da talde edo kolektiboak konpromisoa hartzea gaia lantzeko eta formaziorako prest egotea (eta etorkizunean beraien protokolo propioa lantzeko prest). Erasoa bizi duenaren beharrak ezagutzea eta prozesu horretan laguntzea gure lana ere bada, ahal dugun heinean.

NEURRIAK ERASOAREN ARABERA (ERASOTZAILEAREKIKO): 1. Neurria, 2. neurria eta 3. neurri moduan sailkatu ditugu, erasoaren larritasunaren eta testuinguruaren araberako erantzunak dira. Hau da, neurriak gertakariekin proportzionalak izaten ahaleginduko gara, eta batez ere, aurrez definitu ditugun printzipioei heltzen:. Adibidez: Erasotzailearekin zuzenean hitz egiteak erasotuaren segurtasunean ondorioak izango dituela aurreikusten baditugu, gure neurriak eta erabakiak garatzeko, bide alternatiboak pentsatu beharko ditugu.

Prozesuaren baldintzak ez ditu erasotzaileak jartzen edo negoziatzen, prozesua onartzen ez badu kidea kanporatuko da eta ikusiko dugu ze bestelako neurri hartu. Erasotzaileak prozesua onartzen badu, urratsen jarraipena EKLak egingo du.

ERASOTZAILEAREKIKO NEURRIAK

1. NEURRIA

1.-Erasoa egin duenarekin (dutenekin) hitz egin, egoera azaldu eta gertaeren larritasuna eta testuingurua mahai-gainean jarri. Erasoaz ohartu eta onartzea, prozesu bat abiatzeko ezinbesteko baldintza litzateke.

2.-Hiru hilabeteko behaketa-zaintza epea irekiko da.

EPE HORRETAN:

1.-Erasotzailea kanpoan egongo da argitu arte (JMZ edo ikastaro iraunkorra) Dinamizazio luzea bada, taldeak egin behar du berifikazio hori.

2.-Erasotzaileak urratsak eman behar ditu erakusteko lanketa bat egiten ari dela, bere jokaerei dagokionean eta sortutako ondorioen inguruan.

3.-Emakumeak eskatzen duen espazioetan betoa jarriko da (espazio fisiko zein birtualak).

2. NEURRIA

1.-Erasotzailearekin hitz egingo da, egoera azaldu eta gertaeren larritasuna eta testuingurua mahai-gainean jarri.
Erasoaz ohartu eta onartzea, prozesu bat abiatzeko ezinbesteko baldintza litzateke.

2.-Urtebeteko behaketa-zaintza epea irekiko da.

EPE HORRETAN:

1.-Erasotzailea kanpoan egon argitu arte (JMZ edo ikastaro iraunkorra). Dinamizazio luzea bada, taldeak egin behar du jarraipena edo argitze hori.

2-Kolektiboan duen rola zalantzan jarriko da (erabaki guneetatik kanporatuz edo ordezkari izateari utziz, adibidez).

3.-Zerbitzu edo terapeuten bidezko laguntza abiatu beharko du, maskulinitateari eta indarkeria matxisten inguruko lanketa egiteko (ikuspegi eraldatzailea duten pertsonekin).

3. NEURRIA

1.-Erasotzailearekin hitz egingo da, egoera azaldu eta gertaeren larritasuna eta testuingurua mahai-gainean jarri.. Erasoaz ohartu eta onartzea, prozesu bat abiatzeko ezinbesteko baldintza litzateke.

2.- Gure espazioetatik epe batez kanporatuko dugu, urte batez gutxienez (gero berrikusi beharko litzateke).

EPE HORRETAN:

1.-Zerbitzu edo terapeuten bidezko laguntza abiatu beharko du, maskulinitateari eta indarkeria matxisten inguruko lanketa egiteko (ikuspegi eraldatzailea duten pertsonekin).

2.-Ezin da joan beste guneetara ordezkari modura (zumalabekoa bada).

KONTUAN HARTU…

Ikasturte bukaeran EKL taldeak kudeatu dituen erasoen inguruko informazioa emango du.

Batzuetan erasotzailea zein den esaten badugu erasotua izan den pertsonaren anonimotasuna bermatzea ia-ia ezinezkoa izan daiteke. Garrantzitsua da hau kontutan hartzea ere.

Gurea ez den eragile batean dinamizazio bat hasten dugunean eraso matxisten aurkako protokoloa dugula aipatuko dugu une eta gune egokian.

Erasotzaileak bere jarreraren inguruko lanketa prozesuan sartzen bada, baloratu behar da ea beharrezkoa den fundazioko kide guztiek jakitea nor den.

ESZENATOKI EZBERDINAK

Dinamizazio batean gaudenean

-Erasotuak ez badu esan nahi: posible balitz erasotuarekin hitz egin eta saiatu akordio batera heltzen taldeari esan ahal izateko (zuzenean edo zeharka eta ez du zertan izan berehala).
-Erasoaz jakitea talde osoaren behar bat ere badela adierazi dezakegu. Izan ere, ez badiogu taldeari ezer esaten, taldeak aukera galtzen du erasoen lanketa kolektiboa egiteko; eta ardura areagotzen da berriz eraso bat gertatzen bada.
-Zumalabeko kideren batek beste dinamizazio prozesu batean topatuko balu erasotzaile hori, informazio hori jakiteak adi egon eta behar bada neurriak hartzen lagunduko dio.

Proiektu talde batean, kide batek berari gertatutako eraso matxista bat jakinarazten du (kanpoko mutil batengandik)

-Erasotuak erabakiko du kide guztiei esango diegun ala ez, eta zein den gaiaren inguruan hitz egiteko bere babes espazioa/proiektua/kideak.

Zumalabek antolatzen duen formazio espazio batean (adibidez, ikastaro asteburu bat)

Ikastaroak berak gune propioa badu lanketa hori egiteko (esaterako BPP), EKL kontrastegune bezala erabili daiteke.

Ikastaroko partaideek erasoaren berri izatea komeni da. BPPk baloratuko du noiz eta nola adierazten den. Inolako planifikazio gabe esatea desegokia izan daiteke. Era berean baloratu beharko da fundazioko beste kideei jakinaraztea.

Zumalabekide bat erasotzailea da

Proiektu talde batean eraso bat gertatu bada agian ez da berehala jakinarazi behar kidego guztiari eta une egokia aukeratu beharko litzateke.

Hori bai, publiko egiten bada, publiko egin aurretik kidego guztiak jakin beharko dute..

HAINBAT EGOEREI AURRE EGITEKO ESTRATEGIAK

Estrategia hauek baliagarriak izan daitezke erasotu, kolektiboa zein ingurukoentzat, erasoek komunitatean sortutako ondorioak ere kontutan hartzea garrantzitsua delako:

-Erasotuarentzako espazio seguruak eta erosoak bermatu.
-Zaintza, babesa eta laguntza eskaini. Ardura guztia bere gain jarri gabe, balizko berosatzeari begirako prozesua berarekin batera pentsatu. Dauzkan beharrak identifikatu, entzun, isiltasunak errespetatu, bere inguruarekin batera zaintzarako neurriak hartu eta esku-hartzerik egin nahi ez badu, errespetatu.
-Taldea, sarea edo ingurua zaindu, prozesua gogorra izan daiteke-eta. Abiatu daitezkeen prozesuetarako, kanpoko esperientziadunen laguntza beharrezkoa izan daiteke.
-Une batzuetan gure ohiko jarduera batzuk eten, eta prozesuari heldu beharko diogu halabeharrez.
-Egon daitezkeen erresistentziak identifikatzea eta kudeaketa kolektibo bati heltzea garrantzitsua deritzogu: prozesua boikoteatzea, erasoa izan denik onartzea, gezurra dela esatea, garrantzia kentzea, biktima paperean jartzea, erantzun bortitza eman, taldean konplizeak bilatzea , mendektua/indarkeria handitzea, kudeaketaren inguruan legitimitatea kentzea taldeari, "ez egin publiko mesedez" edo "ez egin ezer" "ez da errepikatuko", prozesua hasi eta uztea....
-Prozesuan zehar noizbeinka zaindu beharrekoak aztertu eta balorazioa egitea, erasoaren kudeaketari dagokiona zein taldearen kohesioari begirakoa.
-Erasoa bizi duenaren agentzia kontutan hartzea beharrezkoa da: aktiboki erantzuteko aukera, gaitasun eta beharrez ari gara.



Irudi hauek Erresuma Batuko Salvage collective taldearen webgunean bilduta daude, edonork hartzeko eta erabiltzeko moduan. Hainbat artistak afixa proposamenak egin dituzte justizia konpontzailearen filosofiari jarraitu eta komunitateari zuzenduta.

Ez dugu zertan pentsatu behar eraso bat bizi izan duenak ez duela prozesuan parte hartu nahi edo ez duela erantzun nahi. Baina kudeaketa prozesuan, gure esku ez dauden eta askotan gure helburuen artean ez dauden egoerak sortu daitezke. Hona hemen adibide batzuk:

"Ez dakit eraso bat izan den edo ez"

ZER EGIN DEZAKEGU?

-Gure kezka eta babesa adierazi dezakegu, jarrera paternalistetan erori gabe. Egoeraren arabera, aproposenak liratekeen pertsonak baliatuko ditugu komunikaziorako. Jarraipen bat egingo dela bermatuko dugu, horretarako beharrezkoak diren pertsonei gure ardura helduaraziz. Egoera bere azalean bizi duenari, gure babesa izango duela adieraziko diogu, gure baliabideak eta laguntza eskainiz.
-Erasoa bizi duenarekin harremanaren haustura ekiditea garrantzitsua da, eta tentuz jokatzea ezinbestekoa.

"Eraso bezala bizi du baina ez du jakitera eman nahi"

ZER EGIN DEZAKEGU?

-Erabaki hori hartzeko arrazoiengatik galdetu dezakegu eta bere beldurrak desaktibatzeko lagundu dezakegun aztertu.
-Aurrerago bere erabakia aldatzeko aukera izango duela planteatu.
-Salaketa edo jakinarazpena hainbat modutan egiteko aukera dagoela helarazi: emakume etxeetan, talde feministetan, gutun anonimo baten bidez, kalean baina izena aipatu gabe...

"Erasoa bizi duenarekin ez daukagu harreman zuzenik "

ZER EGIN DEZAKEGU?

-Gertutasun mailaren arabera gure babesa adierazi eta babes ingurunea duela ziurtatu. Baita tresnak eskaini akonpainamendu nahikorik ez badu.
-Erasoa egin duena gure fundaziokoa bada, berarekin hartuko diren neurriak eta balizko prozesuak erasotuari jakinarazteko bideak jarriko ditugu.

"Erasotuak taldea utzi nahi du"

ZER EGIN DEZAKEGU?

-Taldea beretzat espazio segurua izan dadin egin genezakeen guztia egin dugula ziurtatu behar dugu.
-Erabaki hori hartzeko arrazoiengatik galdetu dezakegu, bere erabakia errespetatzen dugula helarazi eta aldi berean gure babesa duela.
-Hartutako erabakiaren ostean berarekin kontaktua mantentzeko ahalegina egingo dugu.

Bidean zein amaieran etenak egitearen garrantziaz:

-Hartzen ditugun erabaki bakoitzak ondorioak dituela aintzat hartu beharko genuke. Erasoa publikoki salatzeak, adibidez, zama handia izan al da erasotuarentzat, eta hainbat ondorio eragin ditzake. Hauek aurreikusi ezean, erasotua izan den pertsona urrundu, isolatu eta ber-biktimizatzea eragin lezake.

-Prozesuaren amaieran gaia berriz ateratzeak minak berpiztu ditzake. Hori dela eta, komenigarria litzateke gune erosoak aurreikustea (agian ez dugu guztiok egon behar gune horietan).

-Ebaluazioarekin batera garrantzitsua iruditzen zaigu indarkeriari aurre egiteko moduak sistematizatzea, gure esperientziak biltzea, beste talde edo une batean lagungarri izan daitezkeelako. Garrantzitsua da, kolektiboko batzuen lana bakarrik ez izatea eta beraz transmisioari lekua egitea.

Ebaluaziorako galdera batzuk:

0. Nola gaude? Nola bizi izan dugu prozesua?
1. Lanketa lagungarria izan al da (denbora, baliabideak, edukiak...)?
2. Fase bakoitza aztertu: aurrelanketa, prozesuan zehar eta ostean. Hutsunerik egon al da?
3. Erasotua/erasotzaile/taldearekiko prozesua nola bideratu da? Momentu honetan babes sozialik al dute?
4. Hartutako erabakiak egokiak izan dira? (zerrendatu erabaki nagusiak)
5. Eraldaketa sozialari eta komunitatean eragiteari begira lagungarria izan da?

3. ATALA:

Eranskinak

Protokoloa adosteko eta idazteko prozesuan lan talde bat egon da martxan eta lan handia egin du, askotan ikusezina. Nagusiki lantaldeak bere gain hartu dituen zereginak honako hauek izan dira:

- Prozesuaren diseinua eta jarraipena
- Materialen bilketa, irakurketa eta aukeraketa
- Saio kolektiboen prestaketa eta sistematizazioa
- Oinarrizko kontzeptu eta prozeduren eztabaida eta zirriborroen idazketa
- Herri mugimendu eta elkarteekin harremana eta kontraste saioak
- Protokoloaren erredakzioa, diseinua eta itxiera

Prozesuaren lehen fasean, lan taldeak prozesua pentsatu, txostenaren eskema egin eta txostenaren oinarriak idatzi zituen. Honen ostean, saio kolektiboak egin genituen, eztabaidak egin eta erabakiak hartzeko, baita prebentziorako zein ikaspenak ateratzeko ere.

Bide honetan, hamaika bilera eta saio egin arren, kide guztiei zuzendutako saioetarako sortutako materialak jaso ditugu (baliabideren bat behar izanez gero idatzi iezaguzue).

Jaso ditugun materialen eskema eta saioen azalpena:

- **1.saioa:** lantaldeak prozesua eta lehen zirriborroa aurkeztu zuen eztabaidak jasotzeko asmoz, kide guztien artean zirriborro honen gaineko lanketa egin genuen. Zirriborro honek oraindik ez zuen kudeaketaren atala jasotzen, batez ere oinarrien inguruko eztabaida izan zen (esku-hartzean zaindu beharrekoak, indarkeria matxista eta erasoan nola ulertzen ditugun...). Dispertsio geografikoagatik aldibereko 2 saio egin ziren.
- **2. saioa:** prozesuaren jarraipena egin genuen eta esku-hartzearen edo kudeaketaren atalari heldu genion. Protokoloa aktibatzerako orduan jarraitu beharreko prozedurak eta eszenatokiak landuz, besteak beste.
- **3. saioa:** prozesuaren jarraipena egin eta erasoen eszenatokiaren inguruko lanketa espezifikoa egin zen (erasoaren gunearen arabera eta eraso motaren arabera zein ibilbide jarraitu beharko genuke) eztabaidatu. Dispertsio geografikoagatik, aldibereko 2 saio egin ziren.
- **4. saioa:** herri mugimenduko beste eragileekin kontraste bilera.
- **5. saioa:** behin-behineko protokoloaren proposamenaren inguruan eztabaida
- **6. saioa:** behin-betiko protokoloa izateko zintzilik geratzen ziren gaiak eta erredakzio lanei onarpena eman.

Bide honetan erabili ditugun zein aurrera begira lantzeko interesgarriak suertatu zaizkigun esperientziak eta materialak:

- Gai honi dagokionean fundazio barruan sortu ditugun dokumentu eta aktak (2012-2018)
- Hainbat kolektibotako barne mailako testu eta protokoloak
- Colectivo ESCANDA (data ezezaguna). Hainbat material. Asturies
- Euskal Herriko Emakumeen mundu martxa (2013). INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEKO PROTOKOLOA. Euskal Herria
- Euskal Herriko Emakumeen mundu martxa (2017). ERAILKETA SEXISTEI AURRE EGITEKO PROTOKOLOA. Euskal Herria
- Poble Sec Feminista (2015) PROTOCOL D'ACTUACIÓ CONTRA LES AGRESSIONS SEXISTES FESTES MAJORS DEL POBLE SEC. Bartzelona
- A CLAU ROYA (data ezezaguna). Protocolo de actuación ante agresiones machistas dentro y fuera de nuestro colectivo.
- Amara Berriko jaietako protokoloa (data ezezaguna). Donostia, Euskal Herria
- Hernaniko jaietako protokoloa (data ezezaguna). Hernani, Euskal Herria
- Bilgune Feminista (2016). Bilgune feministako autodefentsa liburuxka. Euskal Herria
- Bilboko konpartsak (2015). Konpartsentzako protokoloa. Bilbo, Euskal Herria
- Moviment popular de Sabadell (2015). PROTOCOL PER A LA PREVENCIÓ I ABORDATGE DE LES VIOLÈNCIES MASCLISTES ALS MOVIMENTS SOCIALS. Sabadell (Herrialde Katalanak)
- Hainbat egile (data ezezaguna). Tijeras para todas, partes de mi que me asustan. Textos sobre violencia machista en los movimientos sociales. Bartzelona
- Fundación los comunes (2017) Violencias Machistas en los movimientos sociales https://labur.eus/20N6b
- Hartas y Combativas bloga https://hartasblog.wordpress.com/
- The Audre Lorde Project https://alp.org/programs/transjustice (NY, AEB)
- The Empty Cages Collective http://www.prisonabolition.org/why-abolition/resources/ (UK)
- http://www.creative-interventions.org/wp-content/uploads/2012/06/CI-Toolkit-Complete-Pre-Release-Version-06.2012-.pdf
- Creative interventions http://www.creative-interventions.org/tools/toolkit/ (Oakland, AEB)
- Salvage project https://projectsalvage.wordpress.com/resources/ (UK)